



Besabi, mendizale eta turista askoren bilgunea

Auzokideei eta kanpokoei ostatu emanez, belaunaldiz belaunaldi eusten diote familiako negozioari / 4-5

Neskatoak "berbideratzeko" gune ezezaguna

Historia ezkutuan argia ikusteko bidean doan ikerketa gauzatzen ari dira. 1959an hasita, Sorabillan neskak kristautasunaren bidetik bideratzeko gunea egon zen / 2-3



Lanbidea pasioz bizi du Manu Etxezortu Euskadi Irratiko esatariak / 8-9

"Introspekzioa" pintura eta marrazki ikasleen erakusketa Basteron, larunbata arte zabalik / 14

Andoaingo Karrika auzoa jaietan murgilduko da, ostiraletik iganderako egitaraua osatuz / 14-15



Urnietako Udal ordezkariak berriak ziklo politiko berriari hasiera eman dio / 6



Udako festak
www.aiurri.eus
webgunean:
Karrika,
Etxeberrieta,
Goiburu, Buruntza
eta Sorabilla



Xabier Arruti, Petra Etxeberria eta Martina Mendiberekin. Bi emakumeak gaztetxoak zirenean Sorabillako egoitzan bizi izan ziren. ITURRIA: XABIER ARRUTI / ANDER OTAÑO

Neskatoak "berbideratzeko" gune ezezaguna Sorabillan

Hirurogei urte atzera eginez, 'bide okerretik' abiatutako neskatoak kristautasunaren bitartez 'bideratzeko' gune bat zabaldu zuten Sorabillan. Orain arte jasotako lekuko gutxiren bidez, historia iluna bezain ezezaguna da. Lekuko gehiagoren bila ari dira

Xabier Lasa ANDOAIN

Ander Otaño eta Xabier Arruti 'Txanka' Burdina taldeko kideak ari dira ikertzen. Arrutik adierazi duenez Iñaki Agirre herriko historialariak 2012an Hementxe aldizkarian argitaratu zuen artikuluari esker (96. zenbakiduna) jaso zuten egoitzari buruzko lehen erreferentzia. "Geroztik, handik pasa ziren neskatoen eta auzoko

bizilagunen lekukotzak eta dokumentazio osagarria jasotzen aritu gara". Informazioa biltzen joan ahala, bi ikerlariak frankismoaren garaiko atal ilun horietako baten aurrean gaudela ohartu dira. "Dakiguna da erreformategi edo *prebentorio* baten funtzioa bete nahi izan zuela, Falange Españolako emakumeen sekzioarekin lotura

zuen seglarren elkarte batek kudeatuta. Euren asmoa bide okerretik zebiltzan neskatoak berbideratzea omen zen". Asmoak asmo, bildutako datuen bidez gazte errugabeak erregimen zapaltzailera kondenatu zituztela ondorioztatzeko datuak biltzen ari dira. "Neskato horiek, *gorrien* edo emagalduen alabak izan zitezkeen, edota familian

hezi nahi ez zituzten gazteak... Ez ziren, inondik inora, abandonatutako edota umezurtz geratutako neskak".

Hiru urtez zabalik izan zen

Sorabillako baserria 1949an erosi ostean, erreformatorio moduko egoitza ireki, eta 6-12 urte bitarteko 25 bat neskato eduki zituzten hurrengo hiru urtetan. "Sei seglar arduratu ziren egoitzaz; zeharo gaixtoa behar zuen izan arduradun nagusia, eta *Echatortas* goitizena jarri zioten. Kuriosoa da, baina barruko bizimodua mozez jantzita egiten zuten, eta kaleko jantziak jantzen zituzten handik ateratzen zirenean. Falangek elkarteari bi mila pezeta ematen zizkion, neskato bakoitzeko. Diru hori arduradunek gorde egiten zuten".

Gosea, miseria eta errepresioa nagusi ziren gerra ostean jaio-takoak dira denak. "Donostiakoak, Tolosakoak, Irungoak, Bidaniakoak, Hondarribikoak... Bertan bizi izandako Alicia, Petra, Teresa, Miren, Piedad eta Martinarekin hitz egin ahal izan dugu. Berdintsua da denen kon-

takizuna: zigorra, torturak, umiliazioa, abandonoa, gosea, eskasia...".

Jasotzen zuten hezkuntza ere penagarria zen, nonbait. "Testigantzek aitortu digutenez, soilik familia diruduneko alabei eskaintzen zieten hezkuntza, eta ez gehiegi. Gainerakoak egun osoa otoitz egin eta egin edukitzen zituzten, beste zereginik gabe; ilaran jartzen zituzten horretarako. Lehortea egokitzen bazen, euri-eske edukitzen zituzten, joan etorrian".

Arduradunek baratza lantzen zuten, eta bi behi eta zerri bat gobernatzen zituzten. "Testigantza batek adierazi digunez, zaindarien gehiago maite zituzten animaliak, neskatoak baino. Ondorioz, bera ere behiekin hobekiago moldatzen zen; haiekin hizketan egin omen zezakeen, zaindarekin ez".

Ezkutukeria

Nahiko ezkutuko bizimodua egiten zuen komunitateak, eta Sorabillan eta Andoainen gertutik ezagutu zutenen oroitzapena oso eskasa da. "Sorabillan

**SEI ETA HAMABI URTE
BITARTEKO NESKAK
"BERBIDERATZEKO",
BASERRIA EGOKITU
ZUTEN SORABILLAN**

**BERTAN BIZI IZAN
ZIRENEN LEKUKOTZA
BERETSUA DA KASU
GUZTIETAN: ZIGORRA,
TORTURAK, GOSEA,...**

umetan bizitu zen batek komen-
tatu digu auzoko etxeetan hau-
rrei agindu beretsua luzatzen
zietela; alegia, ez hurbiltzeko
baserri hartara, paretik pasa
gabe zeharkatzeko, neskatoekin
traturik ez edukitzeko. Komu-
nitatean bizi zen jende hura ez
zela fidatzekoa...”.

Andoainen ez zuten agerpenik
egiten, eta ondorioz herritarre-
kin ez zuten traturik izaten.
“Kalera jaisten ziren bakanetan,
zaintzaileren bat eta bi haur
ibiltzen ziren kalean barrena,
eskean edota zozketako txartelak
saltzen. Salbuespen gisa, behin,
egoitzako haurrek Gabon kanten
lehiaketa batean parte hartu
zuten.

Artxibo ezberdinetan ikerke-
ta lana burutzen ari dira Ander
Otaño eta Xabier Arruti. “An-
doingo udal artxiboan, adibidez,
1950eko biztanleen erroldan,
zenbait emakumeren izen abi-
zenak ageri dira baserri horre-
tako bizilagun gisa; jatorriz Leon,
Burgos, Madril eta Gaztela al-
dekoak direla ageri da. Baina
informazio hori gure testigan-
tzekin kontrastatu ostean, as-
mazio hutsa dela esan dezakegu”.

**Neska baten aitortza gordinak
egoitzaren itxiera eragin zuen**
Erreformatorioak hiru urte bes-
terik ez zuen iraun. Maximo
Yurramendi Urnietako gotzainak
ixtea erabaki zuen arte, salake-
tak zirela medio. Igandero Sora-
billako San Martin elizara jaisten
ziren mezara. Eta behin, meza

**SORABILLAKO
APAIZAK TRATU
TXARREN BERRI IZAN
ZUEN, HAUR BATEN
AITORTZARI ESKER**

aurreko aitortzaren orduan, So-
rabillako erretoreak neskato bati
ea bekaturik egin ote zuen gal-
detu zion. Neskatoak zera eran-
tzun: baietz, ondoko baserriko
baratzatik lapurtzen aritu zela,
goseak estututa. “Gehiago ere
kontatu zion: zaindarien tratu
txarrak eragiten omen zizkieten
neskatoei, eta baita zigorrak
ezarri ere. Goseak pasa beharrean,
eta zikin-zikin edukitzen zituz-
tela aitortu ere. Mezan zehar,
erretoreak arduradun nagusiari
–*Echatortas* goitizena zuena– ez
zion jaunartzea eman nahi izan.
Meza bukatuta, neskato guztiak
baserrira itzuli zirenean, ardu-
radun nagusi horrek denak hor-
maren kontra jarrarazi zituen;
galtzerdiak jaitsi, gonak igo, eta
hurritzaren makilarekin jipoitu
egin zituen denak. Horrela jardun
zuen neskatoen arduradunak,
harik eta neskatoak erretoreari
esandakoa aitortu zuen arte.
Ordurako, baina, erretorea Yu-
rramendi gotzainarekin egona
zen. Berehala, Gotzainak neska-
toen zentroa ixtea erabaki zuen”.

Horrenbestez, 1952an, seglarren
elkarteak neskato guztiak Do-
nostiako Gros auzoan zuen egoi-
tzara eraman zituen. “Goizetan
Intxaurrendoko laborategi ba-
tera eramaten zituzten, lanera.
Ontzietan pilulak sartu eta li-
kidoa botilaratzea zen haien
eginkizuna. Lan horrexegatik
ere, elkarteak dirua kobratzen
zuen. Neskatoen esplotazioaren
kontura dirua jasotzen aritu
ziren”.

**GOTZAITEGIAREN
AGINDUZ, BASERRIKO
JARDUERA ITXI ETA
NESKAK DONOSTIARA
ERAMAN ZITUZTEN**



Sorabillako neskatoen taldea. ITURRIA: XABIER ARRUTI / ANDER OTAÑO

Iraganeko historia berreskuratzeko deialdia

Frankismoan zehar hainbat
neskatoen giza eskubideak urratu
zituzten Sorabillako baserri
hartan, eta horren gainean
Andoainen deusik ez, edo eta oso
gutxi, jakin izan da hamarkadetan.
Ezkutatuta egon den -eta egoten
jarraitzen duen- egia argitan jarri
behar dela iruditzen zaie Burdina
taldeko Ander Otaño eta Xabier
Arrutiri. “Orduan neskatoak ziren
emakume horiek merezi dutelako,

lehenengo eta behin. Emakume
horien duintasunagatik, besterik
ez bada ere”. Baserri hartan
gertatu zen guztia jakiteko
irrikatan dabilta, eta deialdia
luzatu dute komunikabideetan,
edozein motatako informazioa
eduki dezaketen pertsonen begira.

Batik bat egoitza hartatik
igaro ziren neskatoekin jarri
nahi dute harremanetan; bizi
direnek, egun, 70 urtetik gora

edukiko dituzte. Horiengandik
zuzeneko informazioa jasotzeko
itxaropena daukate, orain arte
egin duten gisa. Nolanahi ere,
eskuzabalik hartuko dute
bestelako datuekin hurbiltzen
zaien edonor.

Bi ikerlariak korreo elektronikoa
zabaldutako, eurekin
harremanetan jartzeko.

E-posta:
amigasdealicia1949@gmail.com



andoaINDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Pagola anaiak, Besabiko jatetxeko barraren bestaldean. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Zifra potoloak dituzte bizkarrean urtetan urnietar askoren sabel orroak apaldu dituzten langile finek. Gurutze Errazkinek bizitza erdia baino gehiago darama Besabirainoko bidea egiten. Astean sei egunez, 30 urtez. Haren bi semeak ere bidean dira. Jon zaharrenak 12 daramatza (16 urteraino kontatu du, gehiago komeni ez), eta Aitor gazteenak hamarkada osoa dagoeneko. Amaren urte kopurua berdinduko ote duten ez dakite, baina ez dira oso baikorrak. Tabernariaren lana oso lotua dela diote, ordu asko egurrean soldata normal baten truke, baina familia negoziola denez, puska batean jarraitzeko prest. Urnietatik, Andoaindik eta edozein tokitik bazoaz Besabin beti egingo dizute harrera ona. Ezaguna bazara, are gehiago. Eta jana eta edaria eskaini, nahi beste. Jatetxea ikur bilakatu da mendizale izan edo ez izan, Adarramendira edo inguruko mendie-

Besabi jatetxea, Urnietako ondare

Urnietako altxor bilakatu da Besabi azken hamarkadetan, Adarramendi mendiarekin bikote banaezina osatuz. Bertako bizipenen berri eman diote Aiurri-ri langileek: Gurutze Errazkinek, eta haren seme Jon eta Aitor Pagolak

tara bueltaxka egin edo ez egin. Adarramendi jende gehien biltzen duen mendia da, Bilboko Pagasarrirekin batera, eta gehienok gogoko izaten dugu gorputza estutu ostean, zintzurra bustitzea edota mokadutxoak jatea. Besabi toki ezin aproposagoa da horretarako, bertan zerbait ondo egiten badute, txukun jaten ematea baita.

Gurutze Errazkinek entziklopedia bat idatzi dezake urtetan han bizitakoekin, baina lehen erantzunean, garbi uzten du iraganean tratua, tabernari-bezero harremana, askoz naturalagoa zela: “Garai batean bertako mutilzarrak etortzen ziren sarri, babesleku bezala, hizketarako aitzakia gisa. Gosauria, hamaiketakoa, bazkari

edo afaria izan, ez zen garrantzitsua. Garai batean mahaia partekatu egiten ziren, lekuri ez bazegoen, eta giro onean, tertuliak sortzen ziren. Orain askoz ere hotzagoa da harremana. Bakoitzak bere mahaia nahi du, inor ez du nahi ondoan, bi lagun segapatora begira egoten dira luze... Urte batzuk atzera norbait sartu, agurra egin eta

natural hasten zen harremana. Egun, hori ez da hain ohikoa”.

Besabi astelehenetan, eta astearte eta asteazken arratsetan ixten dute. Abuztu bukaera eta iraileko lehen erdian ere bai. Beste egun guztietan han topatuko dituzu Gurutze eta bere bi semeak, Jon eta Aitor. Gustuko tokian aldaparik ez, dio esaera zaharrak, eta hala baieztatzen du Gurutzek: “Ostalaritza gogorra? Bai, baino gustatu egiten zait. Sukaldean aritzea eta jendearekin egotea gogoko dut. Gustura ez bazaude zaila da hemen irautea. Nik familia lotura badaukat, senarra, koinatuak, semeak... horrek ere bultzatu nau, noski. Semeak hemen hazi dira, ikusi ditut hazten, eta ni beste nonbait aritu izan baintz lanean, norbaitek hezi beharko lituzke semeak. Hemen nirekin hazi eta hezi dira”.

Antzera mintzatzen da Jon Pagola, seme zaharrena: “Sentimenduak balio du hemen. Hemen jaio gara, hemen hazi, eta haxe da gure egunerokoa”. Aitor anaia gazteak bota dio puntua: “Gurea bizitzeko modu bat da, ia-ia. Jaiki, inguruko baserrietan erosketak egin, hona etorri eta jendea atenditu, bazkariak eman, hozkailuak bete...”. Orduan zama bezeroekin duten tratuekin arintzen dute bi gazteek: “Herriko jendeak asko eskertzen du gure lana, etxeko jendea egotea lanean”, dio Jonek. “Jende euskalduna, basoerdi bat eskatzen duena modu naturalean. Edo aspaldi etortzen ez zena, eta Joxe Mari osaba agurtzeko etortzen den jendea. *Hemen bazegoen ba, gizon bizardun bat?* Eta guk, *‘bai, sukaldean dago, esango diot ateratzeko’*, Aitorrek.

Ezaugarri askotako bezeroak

Besabi gustuko toki bezala ikusten dutela uste dute hirurek, baina hirurek bat egiten dute oso gustuko ez duten bezero bati buruz hitz egiterakoan: “Badago jende tentea, gu ez jakin edo baldar samar bezala tratatzen gaituztenak, gehiago bailiran,



FRANTZIAKO TOURRA
AIURRI.EUS | @aiurri





Gurutze ama, Jon eta Aitor semeekin batera. AIURRI

eta guri goitik behera begiratzeko gaituena. Jende batek ez dauka arazorik igande batean edozein jatetxetan 60 edo 80 euro ordaintzeko, baina hona etortzen direnean *regateatzen* ibili zaleak dira. Eta gu ez gara joko horretan sartu zale. Hau da salneurria, etorri nahi baduzu ondo, eta bestela ere bai”. Aitorrek dio lehen hitzean nabaritzen dela nolakoa den bezeroa, eta nongoa den: “Urnietakoa edo ingurukoa denak errespetuz tratatzen gaitu, baina bada noizean behin etortzen den bezero horietakoa, dena *ti-ta* batean prestatzea nahi duena, zain dauden besteei errespeturik adierazi gabe. Eta hori onartezina da”.

“LEHEN MAHAIK PARTEKATU EGITEN ZIREN. GIRO ONEAN, TERTULIAK SORTZEN ZIREN”

“JENDEAREKIN EGOTEA GUSTATZEN ZAIT. GUSTURA EZ BAZAUDE ZAILA DA HEMEN IRAUTEA”.

GURUTZE ERRAZKIN

Gurutzek dioenez, “lehen beste jarrera bat zuten bezeroek, patxada handiagoa. Orain denak izan behar du berehala, presak akabatzen, eta jarrera nahiko baldarrarekin. Iraganeko poza botatzen dut faltan, jendea kiskalita etortzen da. Ez dakit egoeira ekonomikoa den edo zer den, baina ez dauka pazientziarik”. Orain aste batzuk pasatakoa kontatzen du zerbitzariak: “Goizean etorri nintzen, 10:00ak aldera, beti bezala. Gauzak sartzen hasi nintzen sukaldara, eta atarian zeuden emakume batzuk galdezka hasi zitzaizkidan: ‘Orain ireki behar duzue?’. Esan nien, ‘gauzak barruan sartzen utziko didazue? Presa daukazue?’. Iraganeko pasadizo bat, kontrapuntu gisa: “Gogoan dut elur eguna zela, eta inguruko baserritar bat karretillarekin etorri, eta aste guztirako behar zuena eraman zuen baserrira, Besabi supermerkatu bat bailitzan. A ze garaiak haiek!”.

Aitorrek jendea Besabi McDonalds bat dela pentsatzen duela dio, “gu janari azkarreko jatetxe bat garela, eta ez da horrela. Beste gauzaren bat egiten ari, eta jendea oihuka pintxo bat, edo garagardo bat nahi duela eskatzen, oihuka. Egon hadi lasai, motel!”. Jon anaiak kontsumo joerak aldatu egin direla

uste du: “Orain urte batzuk jendeak lasaiago eskatzen zuen, ziur aski diru gehiago zegoelako poltsikoan. Orain jendea etxetik ateratzen da, eta badaki zenbat kostako zaion bazkaria. Jendeak begiratu egiten dio sosari. Guk, orain 10-12 urte bost karta joko antolatzen genituen ostegunero. Orain dagoeneko 23:30ean itxita dago jatetxea, hutsik. Baserritar garaiko tradizioak ziren. Hori bukatu da”.

Ezkor etorkizunari begira

Besabiko jangelan 60-70 laguentzat tokia dago, eta asteburuan lana hobeto egiten dute: pintxoak, hamaiketakoak, bazkariak eta afariak... “gelditu

“SENTIMENDUAK BALIO DU HEMEN. HEMEN JAIO GARA ETA HAUXE DA GURE EGUNEROKOA”

“FAMILIA NEGOZIOA DA, ETA GALDU DAITEKEELA PENTSATZEAK PENA EMATEN DU”

JON PAGOLA

gabe aritzen gara, hemen gauden 6-7 lagunak”, dio Jonek. Ostegunetik igandera Besabin bizi dira ia-ia Pagola-Errazkin sendiko lau kideak. Orduak eta orduak, jardunaldi amaigabeak. Tabernari lana uzteko tentazioa izan al dute noizbait bi gazteek? Jon mintzo da: “Handia, eta askotan. Baina familia negozioa da, eta amonak, osaba-izebek, gurasoek hasitako bidea alferrik galdu daitekeela pentsatzeak pena ematen dizu. Planto egingo bagenu ez dakit zer gertatuko litzatekeen. Diotenez, inor ez da funtsezkoa...”. Aitor: “Ordu asko dira, bai, baina egin behar bada, ba egin eta kito. Ahal denean parranda batzuk bota lagunekin, eguna nola edo ala pasa, eta segi”.

Aitorrek hiru gradu ertain eta gradu goren bat ditu eginak, azkena elektrizitatea. Erasmus beka ere bitan baliatu du, eta mundua ezagutzen du. Herbehereetan egona da, urteko lehen hilabeteetan, eta joan gustura joan bazen, etorri ere bai: “Ikasi egiten da atzerrian, praktikak egin, zer jaten den aztertu, bertako kultura edan... baina gustura bueltatu naiz etxera eta lanera”. Kuadrillako kide gehienak bezala, tabernari lana utzi eta astelehenetik ostiralera bi-tarteko lanen bat hartuko ote

lukeen galdetuta, “momentuz ez nuke aldatuko. Gero, familia bat baldin badaukat, ez dakit, biko-teak zer esaten duen ere aintzat hartu beharko nuke”. Jon anaia aspaldi ezkondu zen, Itxasburu sagardotegiko alabarekin, ostalaritza gertutik ezagutzen duen pertsonarekin, alegia: “Beti munduaren aldrebes zabilta. Nire bikotearen familiak sagardotegia dauka, eta horri esker eraman-garriagoa da tabernari jarduna. Irati eta Izaro bi alaba ditut, eta atsedena abuztu bukaeran eta irailean hartzen dut. Nafarroan etxe bat daukagu, eta han Jesuiten pare egiten ditut bizpahiru aste. Hori da nire urteroko askatasuna”.

Hausnartzen ote dute, etorkizunaz? Aitor gazteak gutxi: “Denbora libre gutxi daukat, eta zaila da epe luzera begiratzea. Hamar urte barru zer izango den... Soldata bat irabazteko ordu asko sartzen ditugu, aste-buruetan bereziki, eta jatetxe batean mendi puntan. Badirudi hemen aberasten ari garela, eta ez da hala. Eta sentsazioa da gero eta margen gutxiago dagoela. Gure antzeko erregelietan etorkizuna gero eta beltzagoa dela esango nuke”. Jonek ere garbi du, Besabik irauten badu, “familia negozio bat delako irauten du. Hona bertakoak ez diren langile asko sartuko bagenitu, komeriak, lanaldia luzea delako”. Jonek planak, eduki, baditu, bizitza erosoagoa izateko asmotan, baina baita ere Besabin oraindik urte batzuk egin beharra dituela. Bi alabak aholku eske joaten zaizkienean, zer esango dien ere garbi du: “Tuntunak ez izateko, ikasteko, tontoa izateko aitarekin nahikoa dela. Ez nieke tabernan aritze-ko esango, noski”.

“BADAGO JENDE TENTE, GU EZ JAKIN EDO BALDAR SAMAR BEZALA TRATATZEN GAITUZTENAK”

“ZENBAITZUK MCDONALDS BAT GARELA USTE DUTE, ETA EZ DA HORRELA”

AITOR PAGOLA



Mikel Pagola Tolosa, alkatea (EAJ-PNV).



Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV).



Lucía Goñi Martínez (EAJ-PNV).



Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV).



Juan Luis Goikoetxea Benzala (EAJ-PNV).



Mikel Artola Pagola (EAJ-PNV).



David Rosco Jorge (EAJ-PNV).

Urnietako Udal ordezkariak

Zortzi aurpegi berri ageri dira abiatu den ziklo politiko berrian. Aldaketa handia, beraz, Mikel Pagola alkatearen hirugarren agintaldiari ekiteko

Erredakzioa URNIETA

Ekainaren 28ko ez ohiko udal batzaraldiarekin agintaldi berriko ardurak banatu zituzten. Dagoeneko, beraz, lau urteko ziklo politiko berria martxan dago. Uztailaren amaieran eta irailaren amaieran deituko dituzte Udalaren osoko lehen bi

plenoak. Mikel Pagola alkatearekin batera, EAJ-PNVko hiru zinegotzik hartu dituzte Udal ardura handienak: Jorge Seguradok Lurraldea, Lucia Goñik Herritargoa eta Antolakuntza Jose Luis Goikoetxea. EH Bilduko Ainara de Miguel laugarren alkate-ordea da.



Ainara de Miguel Berasategui (EH Bildu).



Ainhoa Jauregui Cabezon (EH Bildu).



Mikel Legarreta Astiasaran (EH Bildu).



Nekane Ubillos Cipitria (EH Bildu).



Herme Gonzalez Moran (PSE-EE).



Consuelo Frutos Gonzalez (PSE-EE).

Egunean eguneko albisteak sarean



Tourra Urbistondoren eskutik



Urnietako Donosti Cup txapelketan



Urnietako Udal kiroldegia

AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA


PROTAGONISTA

"Gauza askoren berri izatea ahalbidetzen dit kazetaritzak"

MIKEL ARBERAS AIURRIKO KAZETARIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Gazteak kazetari ikasketak egin eta gero, diseinu grafikoari heldu zion Donostiako Ceinpron. Dualaren baitan, Aiurriko erredakzioan urtebeteko lanaldia osatzeari ekin dio. **Aiurriko lantaldean hasi berria zara. Zer moduz moldatzen ari zara kazetari modura zure herrian bertan?**

Egia esan, gustura nago eta nahiko ondo moldatzen naizela uste dut. Herria ondo ezagutzen dut, baita herrikideak ere, beraz, erraza egiten zait saltsetan sartuta egotea. Gainera, herritarrak jatorrak direnez, asko errazten didate lana.

Kazetari eta diseinatzaile grafikoa zara, zer da alor bakoitzeetik gogoko duzuna?

Kazetaritzak gauza anitzen berri izatea ahalbidetzen dit, askotariko gaiei buruz. Niri asko gustatzen zait gertakarien berri edukitzea eta informazio hori herritarrei helaraztea. Disenatzaile grafikoa ikuspuntutik, argazkilaritza eta bideogintza dira gehien gustatzen zaizkidan alorrak. **Aurten udan Andoaingo jaien jarraipena egiten arituko zara. Lanerako gogoz?**

Lan eramangarria da. Guztiok nahiago dugu festez gozatu



Mikel Arberas andoaindar gaztea ekainaz geroztik Aiurri ari da lanean. AIURRI

lanean egon beharrean, baina gustura egiten ditut egin beharrekoak. Jaiak irudien eta bideoen bitartez jaso eta helaraztea garrantzitsua da, eta hori guztia zabaltzea nire ardura da. Beste modu batera biziko ditut jaiak.

"KAZETARITZAK GAUZA ANITZEN BERRI IZATEA AHALBIDETZEN DIT, ASKOTARIKO GAIEI BURUZ"

Gazteleku pilota elkarteko kidea zara, eta aurten gainera Kontzejupekoa irabazi duzu. Pilota al da afizio handiena?

Pilota eta pilotarekin zerikusia duten kirolak asko gustatzen zaizkit, bost urte nituenetik eskuz jokatzeko

"EZ DIOT GARRANTZIA KIROL BAKAR BATI EMAN NAHI, ANDOAINEN KIROL GEHIAGO BAITAUDE"

saiatu naiz eta. Baina afizio gehiago ere baditut: bidaiatzea edota argazkilaritza beste batzuen artean.

Udan zehar zure lana webgunean eta sareetan ikusi ahal izango da?

Ekainean hasi nintzen lanean eta nik uste dut erritmoa hartu dudala. Orain arte elkarrizketa batzuk egin ditut, webgunerako eta astekarirako. Jaietan ere argazkiak eta bideoak egiten ari naiz, alde batetik bestera. Horrez gain, albisteak erredaktatu eta zabaldu ditut sare sozialen bidez. Hasi naizenetik gauza dezente egin ditudala uste dut.

Udara amaitzean zer egingo duzu Aiurri?

Orain arte bezala, webgunean eta sare sozialetan lanean ari naiz. Astekarian berriz, kirolen arloan eta agendan jardungo dut. Andoainen kirol mugimendu handia dago, adibidez, futbola, pilota, eskubaloia, saskibaloia, judoa, txirrindularitza beste askoren artean. Nik ez diot garrantzia kirol bakar bati eman nahi, Andoainen kirol gehiago baitaude. Egia da ez dela erraza kirol guztien emaitzei eta txapelketei buruz informatzea, baina nire ahalegina egingo dut kirolen arloa anitza izan dadin.

DEIALDIA

Urnietako paisaia planaren garapena



Paisaia plana lantzeari ekingo dio Urnietako Udalak, besteak beste, Trankax errearen ibilbidea aztertzeko. Planaren eta egitasmoen berri emateko bilera deitu dute ostegun honetarako, 18:30ean hasita Lekaion. Bilera irekia izango da eta herritar guztiek parte hartzeko aukera izango dute.

Udalak ohar bidez aurreratu bezala, "paisaiaren ekintza planaren helburu nagusietako bat Trankaxko erreka paisaia aldetik hobetzeko egin beharreko ekintzak ezartzea da, Ergoien industrialdetik, herrian duen ibilbidea eta ia Hernanirekin mugan dagoen errotaraino. Ibaiari lotutako konektibitate ekologiko eta paisaiazkoa hobetzea lortu nahi da. Paisaia Plana ez da araugintzako plan bat, baina zenbait gomendio emango ditu aztertutako eremuak garatzeko eta hobetzeko ibilbide-orri gisa. Espero da Urnietako jasangarriagoa lortzeko bidean zenbait proposamen zehatz barneratuko dituen plana urte amaierarako amaituta egotea".



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo, Mikel Arberas.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietako).
Diseinua: Golena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Idoia Torregarai TTAP DONOSTIA

Irratiko ahotsa zara, urte askoan, 1991. Urteetik, oker ez banago. Zer da, zuretzat, irratia?

Irratia da gailu txiki bat. Akordatzeko zara neska-mutilak ginen garaian nola igande arratsaldeetan joaten ziren senar-emazteak eskutik helduta eta senarrak eramaten zuen irrati txiki bat futbol partidak jarraitzeko? Ba, niretzat, irratia, batez ere, gailu txiki hori da. Gaur egun, irratia kontsumitzeko moduak asko aldatu dira, ordenagailu bitartez, mugikor bitartez... Baina, niretzako, irratia gailu txiki bat da oraindik. Gailu txiki zoragarri bat. Gailu txiki horretatik pentsa zenbat gauza ateratzen diren. Ateratzen dira notiziak, politikariak hizketan, idazleak, umorea, kirola... Eta ze merke! Pila-txo batzuekin bakarrik, pentsa ze energia gutxi eta zeinen iraunkorra den irratia.

Magia, ezta?

Bai, hori da.

Eta, zuretzat, bizitzan, zer da?

Niretzat, pasio bat da. Ordu asko eskaini dizkiot, nire bizitzako zati handi bat, eta pozak ere eman dizkit. Nire bokazioa izan da, haurra nintzenetik. Lagunekin eta anaiekin jolasean ibiltzen nintzen, baina jolas bat zen etxean bertan irrati bat sortzea. Eta musika jartzen nuen eta teknikari izango banintz bezala egiten nuen. Musika jartzen nuen, kirol emaitzak irakurtzen nituen egunkaririk, elkarrizketa faltsuak asmatzen nituen, ahots ezberdinak egiten nituen. Beraz, lanean hasi aurretik, irratia jolasa ere zen niretzat.

Eta gogoan duzu lehenbiziko aldiz mikrofonoa esku artean izan zenueneko?

Bai! Aurten, udan, 30 urte bete-ko dira. Leioan Kazetaritza ikasten ari nintzen eta ordezkapenak egiteko aurkeztu nintzen. Azterketa bat egin, eta gaingitu egin nuen, eta Odile Kruzetak deitu zidan albistegietarako ordezkapenak egiteko. Uda aldean, goizeko sei etarako han nengoen eta albistegietan lan egin nuen, *Goiz kronika* albistegian. Ez naiz akordatzeko ze kronika egin nuen, baina albistegian hasi nintzela bai.

Eta espero zenuena topatu zenuen?

Ezustekoak ere hartu nituen. Irratiaren magia ahotsak dira. Zuk irratia entzuten duzu, eta ahots horiei aurpegia jartzen diezu. Eta ezagutzen nituen aho-

"Irratigintza nire bokazioa izan da, haurra nintzenetik"

MANU ETXEZORTU EUSKADI IRRATIKO ESATARIA

Irratiko ahots bezala hogeita hamar urteko egingo ditu uda honetan andoaindarrak. Irratia da bere "pasioa", eta Euskadi Irratia "erreferentea"



Manu Etxezortu irrati esatariaren ahotsa euskaldun askorentzat ezaguna da. TTAP

tsak ez zetozen bat askotan pentsatu nuenarekin. Ezustekoak jaso nituen. Onak eta txarrak. Niri ere gertatu zait, e. Behin, Faktoria programa egiten genduzala entzule batek deitu zigun iritzia emateko. Nik eskerrak eman nizkion iritzia emateagatik, eta berak: *"Zaude, zaude, Manu! Urte asko daramatzat irratia entzuten eta duela gutxi Berria-n ikusi dut zure argazki bat"*. Eta isilik geratu zen. Eta nik esan nion: *"Eta? Zer? Guapoagoa imajinatzen ninduzun?"*. Eta berak esan zidan: *"Desberdina"*. Kar, kar, kar... Beraz, onerako edo txarrerako, zuk aurpegi bat jartzeko diozu ahotsari, eta gero, bat dator edo ez dator. Baina berdina da, irratia horrelakoa da. Zoragarria.

Eta gogoan duzu lehenbiziko aldiz zuzeneko egin zenueneko? Zuzeneko saio bat, adibidez.

Lehendabiziko uda hartan ibili nintzen albistegian eta hurrengo urtean, berriz ere udan hartu ninduten lanerako eta magazin bat egiten hasi nintzen. Elkarrizketak eginez, liburu gomendioak eginez, musika jarritz...

Izan ere, zuzenekoak badauka xarma berezi bat, ezta?

Bai. Ez dakizulako inoiz zer gertatuko den. Beraz, zuzeneko hori kudeatzen asmatzeko sekulako saltsa ematen dio zure ofizioari.

Eta horrelako egoera batean noizbait hitzik gabe geratu zara?

Hitzik gabe ez. Bizikletan ibiltzen ikasten duzunekoaren antzerakoa da. Pedalei ematen diezu eta bazoaz aurrera, eta uneraren batean pedalei eragiteari uzten badiozu bizikleta ere aurrera doa. Hitzik gabe ez zara geratzen. Okerrago izaten da hitz desegokiren bat erabiltzen baldin baduzu. Gero, ez duzu jakiten nola atera korapilo horretatik. Gogoratzen dut garai hartan oso gazte nintzela, gaur egun ez lidake inportako, baina motor gidari batzuk gonbidatu nituen eta haiekin ordu erdi hizketan jardun genuen. Eta agur esateko momentuan eskerririk asko eta kaixo esan nien. Eta ez nuen jakin hortik zelan atera; kar, kar, kar... Orduan, drama bat iruditu zitzaidan.

**"IRRATIAN
ARNAS LUZEKO
KAZETARITZA
EGITEKO BESTE
PATXADA BAT DUGU"**



Albistegietan eta magazinean ibilbide oparoa egin du euskal irratigintzan. TTAP

Urteak daramatzazu elkarrizketak egiten. Baten bat gelditu zaizu oroitzapenean edo bihotzean edo?

Bai, asko. Esate baterako, beti aipatzen dut, eta hamar urte edo izango dira dagoeneko, irratira Nestor izena zuen gizon bat etorri zela. Oso gaixo zegoen alaba bat zuen eta bera borrokan zebilen, ikerketarako dirua biltzen... Borroka asko egin zuen arren eta mediku askoren eskuetatik pasa ziren arren, 5 urteko alaba hil egin zen. Alabatxoa hil eta handik hilabetera etorri zen berriz ere. Ez dakit nondik atera zuen indarra, baina berak gaxorik zeuden beste haur batzuk laguntzen jarraitu nahi zuelako etorri zen irratira. Elkarrizketa hura beti geldituko zait barruan. **Lehenbiziko hamarkada albistegian pasa zenuen, eta azkeneko urte hauetan Faktoria magazinean zabalitza, beste erregistro batean. Zer du bakoitzak?**

Dena da irratia. Nik garai hura bizi izan nuen pasio handiz eta beste hau ere bai. Idazle bati eleberri bat edo ipuin-liburu bat idaztea galdetzea bezala da. Dena da literatura ere. Aldatuko da kontatzeko forma, generoa, tonua, baina, azkenean, zu istorioak kontatzen ari zara.

"ENTZULEEK IRRATIA HAIENA BALITZ BEZALA SENTITZEN DUTE, KONTAKTUA IZUGARRIA DA"

Baina albistegiak badu beste bizkortasun bat...

Badu beste bizkortasun bat, bai, baina albistegietan ere magazineko elementuak sartzen dituzte, eta alderantziz. Orduan, nire ustez, generoa lausotzen ari dira. Azken finean, aktualitateaz ari gara hizketan.

Eta bueltatuko zinateke albistegietara?

Bai! Zergatik ez? Politika, tertuliak, elkarrizketak... Askok gustatzen zaizkit.

Irratiak zertan irabazten dio telebistari?

Ez dakit... Azkartasunean uste dut gaur egun ezetz. Telebistak gaur egun dituen bitartekoekin irratia bezain azkar erantzuten die albisteei. Nik uste dut, gaur egun, irratia telebistari patxadan irabazten diola. Telebistan audientziaren borroka hain da basatia, ezin duzu gauza batekin lasai jardun. Azkar aldatu edo elementu berriak sartu behar dituzu. Irratian arnas luzeko kazetaritza egiteko beste patxada bat dugu.

Eta zer hartuko zenuke telebistatik irratirako?

Erritmoa. Kontraesana dirudi honek, baina erritmoa zenbait momentutan edo telebistako bizitasun hori hainbat momentutan ondo etorriko litzateke. **Esan duzu behin entzule batek deitu zizula eta aurpegia jarri zizula. Zu etxetara sartzen zara egunero-egunero eta familiako kide bilakatzen zara. Gertatu zaiuzu horrelakorik edo esan dizute?**

Bai. Entzuleek zure egutegia ezagutzen dute zuk bezain ondo. Badakite noiz dituzun oporrak, noiz gaixotzen zaren, faltan bazaude... Azkenean, familia bat gara. Familia bat, zentzu guztietan. Irratiko entzuleek ere irratia haiena balitz bezala sentitzen dute, kontaktua izugarria da. Adibidez, klasiko bat izan da irratian telefono deiak jasotzea. Horren funtzioa gaur egun Whatsapp-ek hartu du, eta jendeak asko parte hartzen du. Eta hori irratia oso gertukoa sentitzen dutelako gertatzen da. Entzuleen bitartez ere gauza asko ikasten dira, asko ematen digutelako.

Et zu, adibidez, irratiarekin esnatzen zara?

Esnatzeko iratzargailu bat dut. Baina hanka lurrean jarri bezain pronto irratia pizten dut. Bizarra kentzen ari naizen bitartean ere irratia entzuten dut. Sukaldean gosaltzen ari naizen bitartean ere bai. Etxeko gela bakoitzean irratia bat dut. Hala da.

Eta telebista ikusten duzu?

Telebista ikusten dut, baina ez dut kontsumitzen irratia adina. Irratia denbora guztian, goizez, gauez... Ingurukoek esaten didate: "*Behingoz kenduko al duzu irratia?*".

Zeintzuk dira edo izan dira zure irratirako erreferentziak?

Euskadi Irratia osorik. Iruditzen zait Euskadi Irratiak oso programazio zabala duela gaur egun, eta denetarik eskaintzen

du. Goizeko bostetan hasi Argi ibili Leire Ibargutxirekin, eta gauerdiko hamabietan Ekain Perezen klasikoekin bukatuta, pentsa zenbat programa eta zenbat jende dagoen; adin eta estilo ezberdinetoak, gainera. Niretzat, Euskadi Irratia erreferente bat da egun osoan. Eta euskarazko irratigintza, orokorrean, ere bai. Lehen aipatu dizut irratia txikiarena. Badut beste ohitura friki bat, eta oportetara noanean kanpora beti eramaten dut nire irratia txikia. Maulera banoa, nire irratia txikia eramango dut eta Xiberoko Botza piztuko dut, eta Gasteizen Hala Bedi irratia, eta Seguran Segura irratia, eta Lesakan Xorroxin Irratia. Eta norbaitek esango du horiek Internetez etxetik entzun daitezkeela. Baina ezberdina da.

Lehen esan duzu hitza ez zaizula falta...

Isilik ez naiz geratuko... Beste gauza bat da zer esaten dudana; kar, kar, kar...

Baina zure lan tresna ahotsa da. Eztarria, beraz, zaindu beharreko kontua da esatari batentzat. Zuk zerbait berezia egiten duzu?

Edari hotzak ez dituzu edan behar, ahal dela. Nahi duzu eztarria zaintzeko erremedio bat ematea? Hartu salbia eta erromeroa, eskukada bat bakoitzetik, infusio bat atera hortik, eta infusio horri bota txorrotada bat ozpin eta eztia. Dena ondo nahastu eta horrekin gargarak egin. Orain, batzuetan, horrek ere ez du balio. Eztarria oso nekatuta baldin badago, botikarik onena da atsedean hartzea eta isilik egotea.

Aipatu duzu lehen ere Euskadi Irratia erreferente bat dela irratigintzan. Zein uste duzu dela bere indargunerik handiena?

Informazioa. Edozer gauza gertatzen bada Euskal Herrian edo munduan, Euskadi Irratiak emango dizu. Informazioa, zentzurik zabalenean: politikan, gizartean, kulturean, kirolan, azken ordua... Hor gaude orduro. Magazinean ere, guztiz irekiak direlako, eta beti gaudelako aktualitateari begira. Zerbait sortzen bada, parentesi bat irekitzen da azken ordua emateko. Informazioaren erreferenteak gara.

Eta konpainia eta umorea ere bagara.

Eta zer hobetuko zenuke? Zer ikusten duzu hankamotz?

Nik uste dut hankamotz gaudela Euskadi Irratian eta orokorrean irratia guztietan, pentsatu behar dugula etorkizunean nolako irratia egingo dugun. Oso irratia ona egiten dugu, baina pixka bat ari gara errepikatzen duela 30-40 urte martxan jarritako eskemak. Magazinean klasikoak. Pentsatu behar dugu, eta komunikazioan adituak direnek esaten dute, gazte jendearekiko eten bat sortzen ari dela. Gazte jendeak ez duela hainbeste jotzen irratira. Beraz, nola erakarri horiek? Betidanik izan da hori irratiazen erronka, eta pentsatu beharko ditugu lengoia berriak eta saio berriak gazte jende hori erakartzeko. Hor erronka dugu guk eta irratia guztiek.

Fake news delakoren bat eman duzu noizbait antenan? Nola egin aurre informazioari lotutako gaur egungo gaitz horri?

Zaila da, informazio jariora izugarria delako. Kanal asko daude eta kanal horietatik iristen den informazioa, presaren presaz, notiziak azkarregi eman litezke. Eta pasatu zaigu. Horrelakoetan, autokritika egin beharra dago. Inoiz horrelako hanka-sartzeren bat izan dugunean, autokritika egin dugu, eta egin behar dena da gauzak patxadaz hartu. Berezik, albisteak hurbilekoak direnean. Hobe da hamar minutu itxaron, kontrastatu, dei pare bat egin, egiaztatzen saiatu eta ondoren eman. Twitterren edo txio batean ager daiteke, baina guk kontrastatu egin behar dugu.

Eta zuri ze albiste ematea gustatuko litzazuke? Badago baten bat?

Euskararen ikuspegitik, nahiko nuke egunen baten euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoa iritsi dela esan. Notizia hori ematea izugarri gustatuko litzaidake. Ni euskaldun mundutik natorrelako eta mundu hori gustatzen zaidalako.

Eta talde-lanaren garrantzia ere badu zure lanak...

Izugarria. Ni naiz apur bat aurpegia edo ahotsa jartzen duena, baina talde bat gara. Denak daude lanerako prest eta talde-lana oso garrantzitsua da, baina programa guztietan. Azkenean, Euskadi Irratian marka da garrantzitsuena, eta Euskadi Irratia hainbat gizabanakok egiten dute. Baina dena talde bat da, eta taldeak du sekulako indarra.



Jaiari jarraipena emango dion talde eragilea astelehen arratsaldean bildu zen Sorabillan. AIURRI

Sorabillako jaiei eusteko egitasmo berritzailea

Sorabillako jaiak aurten ere ospatuko dira, bertan behera geratzeko zorian egon diren arren. Azken urtetan jaien alde lan egin duen Jai Batzordeak eta Gazteleku Pilota Eskolak elkar lanean jardungo dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Iazko jaiak amaitu ostean, Jai Batzordeko kide guztiek antolakuntza uzteko asmoa iragarri zuten. Urte asko zerratutako lanean, nekea sumatzen zutela eta jende berriari txanda pasatzeko ordua iritsi zela adierazi zuten orduan.

Jaien lekukoa hartzeko epealdia ireki zuten, era horretan. Baina hilabeteak aurrera egin ahala inor animatzen ez zenez, Jai Batzordeak erabaki zuen igandeko egitarauari eustea (irailaren 8). Beste modu batera esanda, jaiak antolatzeke hari ahul hori ez etetea, behin erabat utziz gero zaila izaten baita berriro ekitea.

Koruko Ama Birjinaren eguna da irailaren 8a, eta egun horretarako lau ekitaldi antolatzea erabaki zuen jai batzordeak: Meza Alberto Agirre abesbatzarekin batera, Iturzaeta pala txapelketako errebantxa, hamaiketako auzotarrentzat eta, auzoen arteko herri kirolen finala.

Geroztik, baina, Gazteleku pilota eskolak pausoa eraman du, antolaketa lanetan laguntzeko prest legokeela adieraziz. Dena esatera, Andoaingo kirol

elkartek urteak daramatza Sorabillan Iturzaeta memorialeko pilota txapelketa antolatzen, eta bestalde, elkarteko zenbait kidek ere jaietan kolaboratzailerik gisa jardun ohi dute.

Horrenbestez, aurtengoan Jai Batzordeak eta Gazteleku elkarlanean jardungo dute. Hauexek, aurtengo jai egitarauari dagokionez, irailera begira aurreratu daitezkeena:

Irailak 7, larunbata

Gauean zikiro jatea egongo dela ziurtatu dute.

Irailak 8, igandea

Goizean meza Alberto Agirre abesbatzaren parte hartzearekin, Iturzaeta pala txapelketako finalen errebantxa eta hamaiketako auzotarrentzat. Arratsaldean, auzoen arteko herri kirolen finala eta sagardo dastaketa Kantujira taldeak alaituta.

**IRAILAREN 7RAKO
ZIKIRO JATEA
IRAGARRI DUTE.
IRAILAREN 8AN PALA
ETA HERRI KIROLAK**



MANU ETXEZORTU

ELKARRIZKETAK

UNAI ITURRIAGA

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

 **DESKARGATU**
APP Store-n

Ttap euskarazko aldizkari digitala eta multimedia deskargatu zure mugikor edo tabletean.

 **DESKARGATU**
Play Store-n



Haatik konpainiaren "Lau Eme" dantza ikuskizuna Andoainen iragarri dute, datorren uztailaren 20rako. MENDI URRUZUNO

Kale giroan zikloaren hiru saio, datozen egunetan

Iazko zikloari jarraipena emanez, Andoaingo Udaleko Kultura lansailak antzerkia, dantza eta zirkoa herriko txoko ezberdinetara eramango ditu. Hilabete honetan hiru ikuskizun antolatu dituzte, eta irailerako beste bi gehiago

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Uda giroan kultura kalera ateratzeko joera areagotzen ari da hainbat udalerrietan. Baita Andoainean ere.

KALE GORRIAN
Uztailak 11, osteguna.
19:00. Eskola kalea.
50 minutu. Antzerkia.
Etxegabetzeen arazo sozial larria antzerkira eraman du Barsanti konpainiak. "Marino eta Begoña adineko bikotea etxerik gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta gaur, eskundu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da. Polizia bere balkoiaren azpian dago, gunea inguratu dute, eta epai-learen agindua betetzeko prest daude. Auzokideak etxe inguruan batu dira, egera horren lekuko izan, eta, beharbada kexatzeko. Ikusiko dugu azkenean nola amaitzen den kontua. Justizia egingo al da?".

EL FIN DE LAS COSAS
Uztailak 20, larunbata.
19:00. Goikoplaza.
22 minutu. Dantza.
Eva Guerreroren konpainiaren eskutik, dantza garaikidea ka-

lean. Bizitzan hartzen ditugun erabakiez eta horiek gure aldamenekoengan duten eraginaz hausnarketa, artearen bitartez. Saioan zehar, honako gaiak landuko dituzte: ekitea, erreakzio-natzea, ez ekitea, gogogabetasuna, ahultasunak, erritmoa galtzea, aukerak, amore ematea, ezartzea, gure baitan pilatzen ditugun sentimenduak, gertatzea nahiko genukeena eta benetan gertatzen dena".

LAU EME
Uztailak 20, larunbata.
20:00. Goikoplaza.
20 minutu. Dantza.
Haatik konpainiaren eskutik, emakumeak garai ezberdinetan gizartean jokatu duen paperari buruzko dantza ikuskizuna da. Konpainiak urteetan zehar emakumeen ahalduntzea lortzeko bidean egin behar izan duten borroka agertu nahi izan du. Itxuraz libre eta independientea..., baina oraindik euren jokatibideengatik uneoro epaitzen duen gizarte batean. Uztailako saioen ondoren, Kale giroan zikloak jarraipena izango du irailaren 14an eta 21ean, "Chef Nature" eta "Emportats" ikuskizunekin.



Bideoa | Euri jasa astelehen arratsaldean.



Bideoa | Herriko artisten erakusketa Basteron.



Bideoa | Ereserkia berria Kaletxikiko jaietan.



Bideoa | Kantazaun ekimenaren estreinaldia.

AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Bederatziko taldea pozez txoratzen, Galibier gailurra igo eta gero. IKER GARZIA

Tourreko portuetan gora

Andoaingo txirrinduzaleen espedizioa Alpeetara abiatu zen ekainaren 16an. Inguru haietako portu mitiko gehienak igo zituzten, laster bertatik igaroko diren Tourreko txirrindulari profesionalei aurea hartuz

Xabier Lasa ANDOAIN

Leizaur elkarteko bederatzi zikloturistek osatu zuten taldea: Antonio Hernandez, Xabi Gozalo, Angel Pelaez, Manolo Amiama, Jexus Mari Aiertza, Ramon Jorge, Iker Garzia, Pello Azpillaga eta Karlos Letamendik hain zuzen.

Kuadrilla deigarria osatu zuten, inondik inora; izan ere, belau-naldien arteko espedizioa izan zen. Errepidetik erretiratzeko batere gogorik ez daukaten lau jubilatuz ziren tartean, 76, 75, 69 eta 64 urte dituztenak. Beste muturrean, gazteena, 21 urtekoa. Eta gainerako lauak, 45-55 urte bitartean dabilzanak.

Iker Garziak egunerokoa idazten eta argazkiak biltzen aritu zen, birak iraun zuen bitartean, eta berak eman ditu zenbait azalpen. "Irteera nola nahiko genukeen izatea aurrez adierazi izan bagenu, seguru ez zitzagula horren biribila irtengo. Erorikorik ez, zulaketa bakarra, egural-

dia espeziala..., eta batik bat, denok osatu ditugu paperean idatzita utzi genituen lau etapa zirkularrak, bidean ziren portu mitikoetatik igarota".

Bederatzi lagunek Andoaindik irten zirenean gauza bat zeukaten garbi: Alpeetako mendi katera bizikleta gainean gozatzera zihoazela. "Nork bere sasoiak daukanez bizikletaren gainean, hasieratik portuak bakoitzak bere erritmora igoko zituela erabaki genuen, inongo presiorik gabe. Igoaldia eta gero berriro elkartzen ginen beti, jaitziera denok batera egiteko asmoz".

Alpe d'Huez, Galibier, Col du Glandon, Lacets de Montvernier eta Col de Izoard dira gainditu dituzten gailurrik ospetsuenak. Iker Garziari Alpe D-Huezek eragin dio arreta handiena, "Frantziako portu handietan ez bezala, bere igoeran ez dago zehaztuta zenbatgarren kilometroa zoazen, ezta ere altuera. Soilik zenbatgarreneko errebueltak egitera zoazen;

igoerak hogeita bat errebueltak ditu guztira". Garziak aipatu duen beste detailea, argazkilarien presentzia da. "Argazkilariak portu guztietan topatzen dituzu, bidean nahiz gailurrean. Txartela helbide batekin ematen dizute, internet bidez zure argazkia eros ahal izateko".



Taldea etapa bat egin ostean, indarrak berreskuratzen. Ezkerretik hasita: Antonio Hernandez, Xabi Gozalo, Angel Pelaez, Manolo Amiama, Jexus Mari Aiertza, Ramon Jorge, Iker Garzia, Pello Azpillaga eta Karlos Letamendi. IKER GARZIA

Ametsa, betea

Errepideko bizikleta maite duen edonork amesten du egun batzuk hartu eta Alpeetan zehar ibiltzea gora eta behera, eta alde horretatik, Leizaurko bederatzi kideak asebeteta itzuli direla adierazi du Ikerrek. "Leizaur elkartearekin igandetako irteeretan parte hartzen dugunok, beti urtero-urtero aipatu izan dugu, noizbait Alpeetara abiatzearen ideia. Baina beti hurrengo urterako uzten zen; haizeak eramaten zuen ilusioa. Aurten, ordea, di-da erabaki, eta joan-etorriko datak jartzera animatu ginen bi kide. Hortik aurrera, batzen joan ziren beste kideak, bederatziko taldea osatu arte".

Guztientzat lehen aldia izan da Alpeetako txangoa. "Ametsa egia bihurtu da guztientzat, txoratu beharrean ibili gara han, eta poz-pozik itzuli gara etxera. Batez ere taldeko zaharrenak kontziente ziren, ziurrenik, hauxe izango zela bizitzak eskainiko zien azken aukera".

Nolanahi ere, denei berriro hara joateko gogoak piztu zaie. "Itzuleran, furgonetan, denak errepikatzen aritu ginen ea noiz antolatuko ote dugun antzeko espedizioa; izan ere, ez baititugu Alpeetako mendi gailur guztiak igo!".

Adinez, elkarren artean diferentzia nabarmenak egon arren, taldean gailendu den armonia ona azpimarratu nahi du Iker Garziak. "Egundoko giroa eduki dugu geure artean, eta gustura osatuko genuke berriro kuadrilla berbera".

Garziak eskerren atala ireki nahi izan du, honetaz gero. "Lehenengo eta behin, Antonio Hernandezen prestutasuna nahi nuke nabarmendu, bizikleta gainean ibilbide guztiak egiteaz gain, sukaldean ere lanean latz aritu izan delako. Eta hortaz aparte, guztion familiei esker ona adierazi nahi nieke, geure ilusio, amets edo kapritxoak bete genezan sakrifikatu behar izan dutelako".

Leizaur elkarte, hamabostero errepidean

Andoaingo Leizaur zikloturisten elkartetik abiatu da Alpeetarako ekimena. "Martxoan hasita, hamabostero irteera egiten ditugu. 30 bat irteera dira guztira, 70-80 kilometroko luzerakoak, eta zenbaitetan 130 kilometrokoak. Nor bere erritmoan doa, batzuekin zein besteekin talde txoak osatuz. Egia esanda, bizikletan ibiltzeko ohitura daukaguentzat prestatzen dira irteerak. 1980an sortu zen Leizaur elkarte, eta, egun, 47 bazkidek osatzen dugu, nahiz eta irteeretan, batzuek beste, 15-20 bat lagun bildu. Gazteak ez zaizkigu hurbiltzen eta, beraz, elkartearen batzuek beste adina zahartzen ari da".

EKAINEAN BEDERATZI LAGUNEKO TXIRRINDUARI TALDEA ALPEETARA ABIATU ZEN

Andoain eta Urnieta Donosti Cup txapelketan

Euskalduna eta Urnieta kirol taldeen parte hartzeaz harago, Ubitarte eta Urnietako futbol zelaia Donosti Cup lehiaketako futbol zelai bilakatu dira. Egun hauetan hainbat partida ikusteko aukera izango da, tartean final aurrekoetako hainbat partida



Euskaldunako jokalariek gazteak Japoniako taldearen aurka Ubitarten partida jokatu eta gero. RAUL VILLAREAL

Erredakzioa ANDOAIN

Partida ugari jokatzen ari dira bi herriotan, egun hauetan. Partida garrantzitsuak datoz, aste-buruari begira. Allurralden 14 urteko nesken mailako Champions League txapelketako finalaurrekoa jokatuko dute, ostiral honetan 11:15etan hasita. 11:30ean. 13 urteko mutilen finalaurrekoa. Eta 15:30ean 15 urteko mutilena.

Urnietan 18 urteko nesken Playoff B txapelketako finalaurrekoa jokatuko da ostiralean, 11:15etan hasita.



Urnieta KE taldeko ordezkariak Donosti Cup txapelketaren aurkezpenean.

Auñamendira irteera

Zanpatuz mendi taldeak datorren uztailaren 20rako mendi irteera antolatu du. Goizeko 05:30ean irtengo dira, eta iluntzerako itzuli. Zeharkaldia 6-8 ordu ingurukoa da eta bereziki ura eramateko aholkua luzatu dute. Izena emateko epea zabalik dago, datorren astelehenera arte. Izen-ematea zabalik Ikasmin akademian eta Kantoi tabernan.



ZANPATUZ



AIURRI

Gaztetxeko finalak ostiral gauean

Ostiral honetan amaituko da Andoaingo Gaztetxeak antolatzen duen eskuz binakako pilota txapelketa. Uztailako lehen egunetan, hogeik bikote aritu dira lehiatzen. Asteazkenean final laurdenak eta finalaurrekoak jokatu eta gero, finala ostiral gauean izango da. Lagunarteko giroan, partida politak ikusteko aukera izaten da. Jaialdia 22:30ean hasiko da.



AIURRI

Pala txapelketa Goiburun

Eskuz binakakoa amaituta, Goiburuko pilotalekuak lehia berria hartuko du. Oraingoan, San Esteban jailetan amaituko den binakako pala txapelketa. Uztailaren 15ean hasiko da, astelehenarekin, eta datorren abuztuaren 4an amaituko da. Mutilen mailako txapelketan parte hartze handia izango da. Denera, 32 bikotetik gora izena emanda daude.

3x3 Basket txapelketa

Andoaingo Gaztetxearen kanpoaldean jokatzen den txapelketa hamargarren ediziora iritsi da. Uztailaren 15etik 26ra, lagunarteko saski partida laburrak jokatuko dira. Udako arratsaldeak girotzeko txapelketa aproposa da. Aurreko egunetan Gaztetxeko kideek eskuz binakako txapelketa antolatu dute Goiburuko pilotalekuan.



AIURRI

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

URNIETA Bilera

Udalak paisaia plana garatu nahi du, besteak beste, Trankaxko erreka ingurunea hobetzeko helburuarekin.
18:30, Lekaio.

ANDOAIN Kale antzerkia

"Kale gorrian" izeneko antzezlanean Juanjo Otero eta Aritza Rodriguez aktore lanetan arituko dira. Hauxe saioaren azalpena: "Aitona-amona bikote bat etxetik gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta, gaur, ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da".
19:00, Eskola kalea.

OSTIRALA 12

ANDOAIN Txapelketa

Gaztetxeak antolatuta, eskuz binakako pilota txapelketa. 3-4. postuak eta finala ostiral honetan.
22:30, Goiburu.

ANDOAIN Karrikako jaiak

19:00 Txupinazoa eta umeentzako txokolate jatea.
20:30 Sardin jatea.
22:30 Rock kontzertuak:
Pangea, Overloud eta Ostabe.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Erakusketa

Pinturan eta marrazketan irakasle den Eduardo Arreseygorren 21 ikaslek beren lanekin osatutako "Introspektzioa" erakusketa zabaldu dute.
Bastero, azken eguna.

ANDOAIN Karrikako jaiak

11:00 Gaztetxoaren futbol txapelketa.
12:00 Zumba Saioa.
12:00 Puzgarriak, apar festa.
12:30 Sagardo dastaketa.
16:00 Karrikako IV. Mus txapelketa.
Izen ematea bikoteko 30 euro.
Izen ematea 15:50etan.
17:00-20:00 Puzgarriak, apar festa.
20:00 Danborradako afaria.
22:00 Danborrada.
23:00 DJ-KI saioa. Atsedendian, ohiko luzoker lasterketa.



Posion Idea egungo argazkian.

ANDOAIN Poison Idea AEBko taldearen agurreko bira

1980ko hamarkadan sortutako taldea aski ezaguna da nazioartean, punk eta hard core mugimenduetan. Emanaldiak ikusmina piztu du musikazaleen artean, sarrerak aspaldi agortu baitziren. Antza, Portland hiriko taldearen azken bira omen da. Haiekin batera %30 eta 25th Comin Fire taldeak zuzenean arituko dira.
Uztailak 13, larunbata. 22:30. Gaztetxea.

ANDOAIN Ikastaroa

Tai-chi qui-qong hastapen ikastaroa, 10:30etik 13:30era. 35 euro.
Info: 943300929.
info@leitzaran-andoain.eus
Leitzaran bisitarien etxea.

ANDOAIN Kontzertua

Posion Idea, %30 eta 25th Comin fire musika taldeak.
Gaztetxea. 22:30. 8 euro. Agortuta.

IGANDEA 14

ANDOAIN Ikastaroa

Nordic walking ikastaroa antolatu du uztailaren 14tik 20ra, taldea osatzen bada. Prezioa: 40 euro.
Info: 943300929.
info@leitzaran-andoain.eus
Leitzaran bisitarien etxea.

ANDOAIN Karrikako jaiak

11:30 Meza Sorabillako elizan hil diren auzokideen omenez.
12:00 Toka txapelketa.
12:00 Marrazki lehiaketa. Irabazleak 2020ko festa programaren azala izango da.
12:00 Patata tortilla lehiaketa.

13:00 Paella txapelketa. Batzordeak paella erraldoia egingo du. Hiru eurotan salduko dira.
18:30 Karrikako play back lehiaketa. Sariak partaide guztientzat.
19:30 Jumping eta Kangoo saioa Gym Saitoren eskutik.
20:30 Kenbat taldearen musika emanaldia.
23:00 Amaierako traka.
23:30 Karrikako festen agurra.

LARUNBATA, 20

ANDOAIN Dantza


"El fin de las cosas" ikuskizuna, Eva Guerreroren eskutik.
19:00, Goikoplaza.

"Lau eme", Haatik taldearen eskutik. Zapalduak ziren garaiko emakumeei buruzko pieza da. Iraganari begirada, pausoz pauso gaur egungo emakumearengana iritsi arte.
20:00, Goikoplaza.

URNIETA Ipuin kontaketa

Haurrentzat ipuin kontaketa saioa, Marisa Taberneroren eskutik.
18:00, Udal kiroldegia.

ZINEMA

**ANDOAIN****UDA ZINEMA****KALEAN**

Andoingo Udalak, Gazte Lokalaren eskutik, udako eskaintza osatu du.

El cavernicola (Harpetarra)

Osteguna, 11: 22:00. Euskaraz. Zumea plaza.

Campeones

Ostirala, 19: 22:00. Goikoplaza.



SINOPSIS

**Harpetarra**

Zuzendaria: Nick Park. **Herrialdea:** Britainia Handia (2018). **Generoa:** Animazioa. **Hizkuntza:** Euskara. **Adin kalifikazioa:** Denentzat. **Iraupena:** 91 minutu.

Dug eta Urderen abenturak

Dug harpetarra eta Urde basurdea dira Aardmanen abentura berri honetako protagonistak. Bi zibilizazio, Harri Arokoa eta Brontze Arokoa, lehian ari dira historian bitartetxo bat lortzeko. Nola? Ba euren arbasoek irakatsi zien moduan: "joko

sakratuarekin". Historian jokatu den partidarik epikoena izango da! Jokoa ez dago kopa bat, baizik eta Dugen tribuak bizirik jarraitzea. Euren basoa arriskuan ikusten baitute Brontze Aroko gizon maltzur eta bilau bat heltzea, Jaun Nooth.

Xistera jardunaldia Andoain

Andoain mutilen arteko Xistera zirkuituko jaialdia burutuko da, larunbat honetan. Lehen fasea amaitzeko Cabanillaseko finalak jokatzea falta denean, 16.00tik aurrera Arrate pilotalekuan bigarren faseko lehen jardunaldia burutuko da. Denera, lau jardunaldi jokatuko dira eta amaieran puntu gehien biltzen dituzten aurrelariak eta atzelariak finala jokatuko dute Donibane Lohizunen, abuztuko azkeneko egunean.

Hiru mailatan izango dira kinielak Andoain. Lehen eta bBigarren mailako pilotariak 15 tantora jokatuko dituzte bi kiniela, eta hirugarren mailakoek, berriz, hiru kiniela jokatuko dituzte. Eta bakoitza 10 tantora. Jaialdia bigarren mailako kinuekin hasiko da, ondoren etorriko da lehen mailakoa, eta amaitzeko hirugarren mailakoa jokatuko da.



Alain Garcia andoaindarra. JON LEUNDA

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Itxaso eta Eñaut Berrueta
Itxasok 3 urteko beteko ditu uztailaren 23an, eta Eñautek 7 urte uztailaren 27an. Zorionak bioi etxekoan partez eta ondo-ondo pasa ditzazuela oporrak. Muxu asko!!!



ANDOAIN
Ur
Uztailaren 10ean 3 urte bete zituen. Uda ona igaro amatxorekin, aitatxorekin eta Xunerekin. Muxu asko, etxekoak.



URNIETA
Izaskun
Zorionak!!! Jadantik lau urte bete dituzu uztailaren 22an. Ondo pasa eguna familia guztiarekin. Muxuak



AIA / ANDOAIN
Aner Lopetegi Zatarain
Abuztuaren 10ean 11 urte. Zorionak etxekoan, Unax eta Olinatzen partetik. Horrela jarraitu pilotari!



ANDOAIN
Aiara Aizpurua Otaño
Zorionak, bihotza! Jada badira 8 urte gure bihotza bete zenuenetik. Asko maite zaitugu, printzesa!

Jaietan murgilduko da Karrika, asteburuan

Jaien atarian Gaspar Jai Batzordeko kidearen sentsazioa honakoa da: "Karrikako jaiak iristear daudenean auzokideek esku bat botatzen dute. Hala ere, guztia aurrerapen gehiagorekin egin zitekeen. Oso zaila da hiruren artean dena antolatzea"

Mikel Arberas ANDOAIN
Ana Isabel Gaspar Karrikako jaien antolakuntzan dabil. Zailtasunak dituzte jaiak antolatze-ko, hiru auzokide besterik ez baitira batzordean.
Nola joan dira jaien antolakuntza?
Oso juxtu, eta dena ematen. Urtero bezala, soilik hiru gaude, eta bakoitzak bere eginkizunak zehaztuta dauzka. Horregatik, askotan ez gara iristen. Adibidez, gaur oraindik gauzak zehazten ari gara eta hastear dira jaiak. Baina esan bezala, ez dugu denbora eta laguntza nahikoa.
Egitarauea murriztu duzue lana aurrezteko?
Egitarauko zenbait gauza kendu nahi genituen, baina azkenean zegoen bezala utzi dugu. Egia esan, Karrikako jaiak iristear daudenean auzokideek esku bat botatzen digute. Laguntza handia ematen dute. Hala ere, lana aurrerapen gehiagorekin egin zitekeen. Azkenean, oso zaila da hiruren artean hau guztia aurrera eramatea.
Zer nolako aurreikuspenak dituzue?
Aurreikuspenak onak dira. San Ferminekin bat egiten du, baina argi dut nahi duena auzora gerturatuko dela. Horrez gain, gurasoek esan izan didate euren umeek Karrikako jaietz gozatu nahi dutela oporretara joan aurretik. Umeak oso gustura



Ana Isabel Gaspar Karrikako jaien antolatzailleetako bat. AIURRI

egoten dira Karrikako festetan. Aurtan, gainera, gauza berriak edukiko dituzte; esaterako, ur puzgarria. Batez ere, umeentzako gauzak ekartzen saiatzen gara. Haurrak dauden lekuan gurasoak ere egoten baitira.
Belaunaldi erreleboa egongo al da festen antolakuntzan?
Oso zail ikusten dut. Pasa den urtean esan nuen antolakuntzarako prest jendea ez bazegoen oso zaila izango zela guztia aurrera eramatea.

Denbora librean egitarauak eta paperak banatzen egoten naiz. Aurtan ere, nire oporralditik bost egun hartu ditut Karrikako jaietan laguntzeko. Auzoan ez dago batzorde bat egiteko jende nahikoa.
Nik ez dut jaien antolakuntza utzi nahi. Auzokideek beti esaten dute laguntzeko prest daudela, baina antolaketa garaia eguna iristen denean ez dira hainbeste gerturatzen, eta horrela zaila da festak antolatzea.

ODOL EMAILEAK

URNIETA
Uztailak 22, astelehena
18:30-20:30. Anbulategi Zaharrean (Denda Berri jubilatuen egoitza).



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 13 eta igandea 14
ZATARAIN: Elizondo, 6. Arteta z/g. 943 59 08 02 Andoain.

URNIETA
Larunbata 13 eta igandea 14
URRUTIA MARTIN: Etxeberri, 1 B. 943 557 738. Florida, Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani. 943 336 022. Perkaiztegi, 8.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:
619 163 537.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

